

# Euskal identitatearen garapena online sare sozialen bidez: gazteen praktika sozialak Facebooken

KOLDO DÍAZ BIZKARGUENAGA\*

Soziologia II (UPV/EHU)

## (The construction of the Basque collective identity on online social networks: Youth and Facebook)

### Abstract

*The transformation that Basque society has suffered and the emergence of the new technologies of communication have transformed the logic, the way, the spaces, the tools and the cultural references to analyze, understand and develop the national identity. The objective of this article is to identify and analyze those elements and for this aim it is going to be exposed a research made in 2011 to answer how youth build Basque identity by Facebook. During this research in addition to answer the influence that online social networks have in social practices and in the construction of the national identity, the sense of community and the question required for the sociological analysis of the Basque identity will be questioned.*

**Keywords:** *Sociology, (Basque) identity, online social networks, Digital Ethnography.*

---

\* Eskerrik beroenak eman nahiko nizkioke Uxoia Anduaga Berrotarneri erortzean altxatu izanagatik eta bide honetan emandako laguntza eta goxotasun guztiagatik, bihotz-bihotzez, mila esker. Era berean bere lan eta eduki teorikoa aitortu beharra daukat: testu honetan zehar ondo esandako ideiak zureak ere baitira.

Eskerrik beroenak ere Gogoa aldizkariari artikulua onartu izanagatik, egindako ekarpenengatik eta euren pazientziagatik. Eta bukatzeko, nola ez, eskerrik asko ikerketan parte hartzen ari zareten guztiei (elkarrizketatu, aditu eta arituei).

## 1. Ikerketaren zergatiak: motibazioak justifikatzen

«Oraindik ez zarenean zutitu bizitzeko alferrikakoa da esertzea idazteko.»

(Henry David Thoreau, Mikel Antzaren «Ospitalekoak» liburutik hartua)

Inguruan gertatzen ari diren aldaketa sozialak ulertzea eta, ahal bada, azaltzea da soziologiaren betebeharr nagusia. Oraindik zutik jarraitu behar dudan une honetan, bititako momentu, leku eta bizipen urriek euskal identitatea motibazio nagusi izatea bideratu naute eta horregatik 2009an Bilboko alde zaharra, gazte koadrilak eta euskal identitatearen garapenaren inguruko ikerketa hasi nuen. Urte batean bukatu behar zuen ikerketa horrek, ordea, printzipioz denboran mugarik ez duen Doktore Tesi proiektua abiarazi zuen. Izan ere, proiektu horretan elkarrizketatutako gazteek teknologia berriak euren artean eratzeko eta komunikatzeko ezinbesteko tresnatzat jotzen zituzten. Beraz, zuzena izanda, ikerketa «objektuak», behatua eta aztertua izan behar zuen aldeak ahalbidetu zuen hausnarketa hau: elkarrizketatutako euskal gazteek eurek identifikatu zituzten inguruan gertatzen ari diren aldaketa sozialak.

Horrela, eurek argitutako bidea jarraituz, euskal gazteria ikerketa subjektu eta euskal identitatearen garapena ikerketa objektu bezala mantenduta, hauek, espazio eta harreman mota ezberdin batzuetan aztertzea erabaki nuen: online espazioan eta harremanetan, alegia. Azken urteetan Facebook bezalako online sare sozialak euskal gizarteak dituen harremanen parte izatera pasatu dira eta egunero erabiltzen diren tresna eta espazio bihurtu dira. Horrela, fisikoki aurrez aurre egon beharrik ez izatea ahalbidetzen duen harreman mota honek euskal gizartean eta euskal identitatearen garapenean izan ditzakeen ondorioak aztertu nahi dira artikulu honen bidez. Argitu nahi den galdera nagusia hurrengo da: euskal identitatearen garapena ematen da online sare sozialen bidez? Eta horrela bada, nola gertatzen da? Hau da, zertzu sinbolo negoziatzen dira espazio horretan eta espazio horren bidez? Zer nolako eragin instituzional eta estruktural jasaten dute espazio horretan ematen diren praktika sozialek? Eta elementu eta harreman horiek guztiek nola eragiten dute euskal identitatean?

Artikulu honen bidez, 2011an egindako ikerketaren bidez lortutako emaitzak aurkeztuko dira. Horretarako, artikuluen formatu klasikoa jarraituz, lehenik eta behin, ikerketa kasu honetan objektu teorikoak diren hiperespazioa eta euskal identitatearen garapenaren hurbilpen teorikoak aurkeztu eta azalduko dira. Bigarrenik, ikerketaren diseinua azalduko da, orain aipatutako ikerketa objektua, subjektua eta espazioak behar bezala argituz, proiektuan maneiatzen diren hipotesiak aurkeztuz, lortu nahi diren helburuak identifikatuz eta horretarako guztirako erabili den metodologia defendatuz. Hirugarrenik, aplikatutako metodologiaren bidez eskuratutako emaitzak aurkeztuko

dira euskal gazteen eta Facebookaren kasuan murgilduz. Azkenik, ikerketa kasu zehatz honen bidez ondorioztatutako hausnarketak plazaratuko dira eta, era berean, hauek irekitzen dituzten bideak eta ikergaldera berriak planteatuko dira.

## 2. Ikerketa arazoa: online munduaren indartzea XXI. mendeko gizartean eta (euskal) identitatearen nozioa<sup>1</sup>

«Ahora que tenemos las respuestas nos cambian las preguntas.»

(Eduardo Galeano)

Ikuspegi orokor batetik abiatuz eta erakundeen eragin sozio-estruturala azpimarratuz, Internet espazio huts moduan edota askatasun osoz sortu eta bete daitekeen espazio moduan ikusten duen irudia ukatu beharra dago: besteak beste, agente ekonomikoek eta ikerketa kasu zehatz honetarako bereziki garrantzitsuak diren agente politikoek paper baldintzatzaile handia jotzen dutelako online munduan ematen diren elkarrekintzetan.

Castellsek berak perspektiba ildo hori definitu egin zuen 2001. urtean *La galaxia Internet* liburuan. Horrela, Javier Echeverriak *Los señores del aire: Telépolis y el tercer entorno* (1999) lanean, Informazio- eta Komunikazio-arako Teknologia (IKT) egungo sistema kapitalistak sortutako teknologia bezala ulertzen duten autoreen multzoan sailkatu zituen korrontea eta Castells bera.

Gaia ikertzen duten hainbat teorilarik Internet espazio isolatu bat ez dela defendatzen dute. Era berean, online mundu horretan offline munduko elementu desberdinek parte hartzen dutela ere proposatu dute zenbait ikerlarik eta horregatik, dimentsio hori «hiperespazioa» bezala ulertu beharra dagoela baieztatzen dute (Gómez, 2002): bi espazioak (offline eta online) uztartzen diren espazio gisa. Horrela beraz, dimentsio sozial batetik ikusita, plano estruktural-instituzionalak duen baldintzatze eraginaz gain, offline munduan jasotako sozializazio prozesuak eta mundu ikuskerak Interneten ematen diren harremanak baldintzatzen dituztela baieztatu daiteke: jaioterriak, klase ekonomikoak, posizio sozialak edota kapital kulturalak berebiziko garrantzia dute online munduko harreman zein posizionamenduetan.

Ikerketa ildo beretik, bigarrenik, Internet hiperespazio gisa irudikatzean subjektu eta objektuaren arteko mugak gainditzen direla baieztatzen dute

---

<sup>1</sup> Ikerketa kasu zehatz bat aurkeztu nahian, marko teorikoa eta hau sostengatzen duten objektu teorikoak ezin izango dira sakontasun osoz aurkeztu. Horregatik, bi ikerketa objektuen hurbilpen teorikoa egingo da aldi berean euskal identitatea eta hiperespazioaren azalpenak uztartuz.

zenbait ikerketak. Izan ere, hau ez da soilik espazio bat non subjektuak (instituzioak, enpresak, nazioak, indibiduoak edota kolektiboak) eduki bat utzi eta objektuak (erabiltzaile gisa ulertuta) jasotzen duen. Subjektu eta objektuen arteko harreman batean pentsatzea laguntzen duen kontzeptua da «Internet 2.0» deritzona (Jones, 1998): edukia igortzen duena hartzailea ere izan baitaiteke, igorleak produzitutako edukia transformatuz. Beraz, hartu-emana posiblea den espazioa da online mundua, non, erabiltzailea batzuetan subjektu, bestetan objektu eta beste zenbait kasutan biak aldi berean den.

Beste garai baten adierazgarri den dikotomien gainditze honetan, azkenik, E. Ardévol, A. Estallela eta D. Dominguez autoreek *La mediación tecnológica en la práctica etnográfica* (2008) liburuko sarreran azaltzen duten moduan, Internet ikerketa espazio eta medio gisa ulertzeko aukera azpimarratu beharra dago. Aztertutako kasu zehatzaren atalean ikusiko den bezala, Facebook elementu desberdinak konpartitzeko espazioa da, baina, era berean, mugak definitzen dituen, elementu berriak proposatzen dituen eta erabilera mota jakin batzuk bultzatzen dituen tresna ere bada. Horregatik, espazioa (edukiak konpartitzeko) eta medioa (komunikatzeko) den Facebook izendatzerako orduan, «Facebook-en» (espazioa) edota «Facebook bidez» (tresna) izendapenak erabili beharra dago aztertu eta azalduko den egoeraren arabera. Honengatik guztiaerengatik, laburbilduz, Internet eta zehazki Facebook, hipertestuaz osatutako hiperespazioa dela defendatuko da ikerketa honetan, tresna edo medioa ere izan daitekeen espazio horretan eta horren bidez subjektua eta objektua edota ekoizle-igorle eta kontsumitzaile-hartzaile figurak uztartzen direlarik.

Harremanak izateko tresna berri honek identitate nazionalaren garapean izan dezakeen eragina aztertzeak ikerketa espazio aberasgarria irekitzen du orain arte planteatu ez diren hainbat galdera eta gai mahai gainean jarritz. Àlvar Peris autore valentziarrak ideia horiek oinarri izanda eta ikerketa honetako bi azterketa objektuak metatuz zera esaten du online munduan garatu daitekeen identitate nazionalaz:

Estatu nazioek gaur egun ere teknologia berrietan askok nahiko lukeen baino eragin handiagoa dute (2010, 229 or.)<sup>2</sup>

Autoreak, garrantzi berezia ematen dio atal honetan estatuak erabiltzen dituzten bi digituen bukaerei (.es edo .fr), hauek, estatu-nazioaren tresna sinboliko bilakatzen direla iradokiz.

Horrela, online munduan euskal identitatea garatzen duten harremanak estatu espainol zein frantsesaren eragina duten emaitza gisa ulertu daitezke

---

<sup>2</sup> «Los estados nación todavía ejercen una capacidad de control mayor sobre las nuevas tecnologías de lo que a muchos les gustaría» (2010, 229 or.).

ere: eragin sozio-historiko-estruktural offline desberdinek baldintzatzen baitituzte on-line munduan aztertutako praktika sozial eta identitario hauek. Erakunde dimentsio batetik ikusita, beraz, estatuak duten baldintzatze indarra azpimarratu beharra dago, azaldutako hiperespazioaren ideiak indarra hartzen duelarik: off-line munduko harremanek baldintzatzen dituzte on-line munduan ematen diren harremanak, aipatutako estatu nazioen eragina off-line dimentsioan sortzen baita. Ikerketa honen bidez, Interneten agerpe-  
nak euskal identitatearen garapenean eragina izan dezakeela proposatu nahi dut. Hala ere, ikerketa kasu zehatzean murgildu baino lehen eta hemen proposatuko diren ideiak hobeto azaldu ahal izateko, ikerketa proiektu honetan hartuko den (euskal) identitatearen inguruko ikuspegiaren nondik norakoak aipatu beharra dago.

Abiapuntu gisa, identitatea prozesu sozio-historiko batek eragindako fruitu kontingente bezala ulertzen da proiektu honetan non egitura, mekanismo, espazio, momentu eta praktika desberdinek parte hartzen duten. Era berean, nortasun honek bere garapenerako ekintza sistema bat mugatzen duela deritzot, erreferente sinboliko desberdinak eztabaidatu ahal izateko espazioa sortuz, bere kideei zentzua eta sentimendua emanez eta gainontzeko identitateetatik berezitez. Euskal identitatea, beraz, historikoki nortasun honen jasandako eragin instituzional (politiko, kultural edota ekonomiko) desberdinen (Euskal Herri barnekoak zein kanpokoak, non estatu espainol zein frantsesaren eragina azpimarratu beharra dagoen) emaitza kontingente bezala ulertzen dut, honek, besteak beste, euskara (hau, euskal identitatea gartzan duen elementu nagusienetarikoa gisa ulertzen dudalarik) edota Euskal Herriaren lurraldetasuna bezalako erreferente sinboliko desberdinak eztabaidatu ahal izateko espazioa sortuz, bere kideei euskal zentzu eta sentimendua emanaz gainontzeko identitateetatik bereiztea ahalbidetzen duen.

Proposatutako definizio honen bidez, ordea, ez da euskal identitatea *zer den* erantzun nahi, izan ere, eragin sozio-historiko-estrukturalak kontuan hartzen dituen ikuspegi konstruktibista honen bidez, soziologikoki ikergaldera hori erantzun ezina dela defendatuko da ikerketa proiektuan. Stuart Hall (2003) edota Judith Butler (2004) berak erabilitako identitate nozioa jarraituz, euskal identitatea ere etengabe «tatxatu» eta berridatziko den identitatea dela proposatu nahi baita: horrela, identitate nozioa etnosozilogikoki edota sozialki esangura desberdinez betetzen den arren, soziologikoki eta zientifikoki bete ezin daitekeen hutsune teorikoa dela deritzot. Hallen «identidad bajo borradura» kontzeptutik abiatuz, identitatearen beharra ikusten da ikerketa abiatzeko, honen ostean identitatearen definizioa kritikatzeko eta gainditzeko: hau zirriboratu edo ezabatu egingo da identitatea *identitate* bilakatzuz, hau bera guztiz ahaztu gabe; identitatea definituko da, baina definizio ez osoa dela jakinda eta *identitatea* dela onartuz; identitatea zer den esango da, baina halakoa ez zela eta etorkizunean ere izango ez dela jakinik, hau *identitatea* baita.

Beste era batera esanda, arrazoi operatiboengatik beharrezko abiapuntu gisa identitatearen definizio bat sortuko da ikerketaren hasierako momentuan, hau bukatzean, identitatea definitzeko ezintasuna dela eta, hastapeneko plan-teamendua kritikatu eta kolokan jarri. Hall berak azalduko duen bezala:

Identitatea halako kontzeptu bat da, alderantzizkatze eta sorreraren artean «tatzadurapean» lan egiten duena; era tradizional batean ulertu ezin daitekeen ideia, baina hau gabe hainbat ideia klabe pentsatu ezin daitezkeelarik. (2003, 14 or.)<sup>3</sup>

Idea honek identitate kontzeptua eraikuntza bezala ulertzen lagunduko du, izan ere, bere baitan orain arte aipaturiko zenbait ezaugarri barne hartzen ditu: momentuan bertan aldakorra den identitate batean pentsatzen lagunduko du, nahi/ahal bestetan eta egiturek baldintzatutako subjektuek behar duten aldiro idatzi, zirriboratu eta berridazteko aukera ematen baitu.

Ildo beretik, Judith Butlerrek lantzen duen «performatibitate» kontzeptua ere azpimarratu beharra dago; hau, aldez aurretik sozialki eta estrukturalki eragindako sineskera eta ikusmolde sozialen errepikapen erritualizatu bezala ulertzen du autoreak. Puntu honetan, subjektu erreflexiboaren praktikek garrantzia handia izango dute, performatibitatea ez delako iterazio hutsa izango: modu kontziente eta erreflexiboan egiten den arauaren errepikapena berau aldaraztera iritsi daiteke, identitatearen ulerkera eta izaera berri bat performatuz. Modu honetan, araua erreproduzitzen duten eta barneratuak diren errepikapenak «originalik ez duen zerbaiten etengabeko kopiak» sortuko ditu. Zentzu honetan, Butlerrek identitatea bete ezinezkoa den osotasun bezala ulertuko du:

Beste hitz batzuetan, ekintzak, keinuak eta desioak sortzen dute barne nukleo baten sustantziaren efektua, baina gorputzaren azalean egiten dute, hutsune adierazgarrien jolasaren bitartez; hutsune horiek identitatea zergati moduko printzipio organizatzaile dela iradokitzen dute, baina inoiz ez dute jakinarazten. Aipatutako ekintza, keinu eta eginkizunak —orokorrean interpretatuak— performatiboak dira, baieztatu nahi duten esentzia edota identitatea asmakizun fabrikatuak diren heinean eta gorputz zeinu eta beste bitarteko diskurtsiboen arabera gordeak diren heinean. (2004, 266 or.)<sup>4</sup>

<sup>3</sup> «La identidad es un concepto de este tipo, que funciona «bajo borradura» en el intervalo entre inversión y surgimiento; una idea que no puede pensarse a la vieja usanza, pero sin la cual ciertas cuestiones clave no pueden pensarse en absoluto» (2003, 14 or.).

<sup>4</sup> «En otras palabras, actos, gestos y deseo crean el efecto de un núcleo interno o sustancia, pero lo hacen en la superficie del cuerpo, mediante el juego de ausencias significantes que evocan, pero nunca revelan, el principio organizador de la identidad como una causa. Dichos actos, gestos y realizaciones —por lo general interpretados— son performativos en el sentido de que la esencia o la identidad que pretenden afirmar son invenciones fabricadas y preservadas mediante signos corpóreos y otros medios discursivos» (2004, 266 or.).

Hallen aurreko ideia berreskuratuz, identitatea etengabeko aldaketa batean egongo da; behin eta berriro zirriborratua eta birplanteatua izango da eta subjektu sozialen praktika eta diskurtsoen bidez eskuraezina den nukleo identitario baten inguruan performatuko da. Teoria eta kontzeptu hauek ikerketa kasu zehatzera ekarriz, euskal identitatea hizkuntza, lurraldetasuna edota jaio-bizi-lan leku bezala akademikoki definitzeak irtenbiderik ez duen hari zientifikoa jarraitzea suposa dezakeela planteatu nahi da. Izan ere, ikuspegi akademiko batetik ikerketa objektu horri ikergaldera horretatik heltzen bazaio, erantzunik ez duen galdera eta bete ezin daitekeen hutsunea dela pentsa daiteke. Sozialki diskurtso eta praktika desberdinen bidez (besteak beste, hizkuntza, lurraldetasun geografikoa edota atxikipen politikoaren bidez) euskal identitatea esanguraz betetzen den arren, soziologikoki ezin daiteke euskal identitatea *zer den* baieztatu.

Ikerketa proiektu honetan, beraz, euskal identitatea *zer den* ezin baieztatu daitekeela defendatuko da. Etengabeko mugimendu eta aldaketan dagoen zer edo zer definitzea ezinezkoa baita eta hala arituz gero «sozio-logikoki» uneoro emandako definizioa zahar eta baliogabe geratuko delako: iraganeko une bati buruz emango luke informazioa euskal identitatearen definizio honen, identitatearen inguruan zegoen ikusmolde soziala desberdina izango zelaririk. Hau da, ikuspegi diakroniko batetik, gaur identitate bezala defini daitekeen hori, desberdina izango da bihar eta definizio hori antzua geratuko da dagokion errealitate horri erreferentzia egiteko. Definizio hori baliogabea izango da gizartera iristen denean, bertako testuingurua, lehentasunak, egiturak eta subjektuak aldatu egingo baitira, eta hau da, hain zuzen ere, «zirriborro azpiko» edota «tatxatu azpiko» identitatea eta «performatibitatea» kontzeptuek garrantzia hartzen duten unea.

Modu berean, kontingentzia kontuan hartzen duen perspektiba sinkroniko batetik, erlaziozko identitateak barnebiltzen dituen aktore sozialak, hauen arteko harremana eta testuinguru globalak, zehatza eta finkoa dirudien identitatea bera ere aldarazi dezakete. Hori guztia kontuan hartuz, beraz, identitateaz emango den definizioa une konkretu, leku, aktore eta testuinguru zehatz hauetarako soilik izango da baliagarria, berau aztertu nahi den beste kasuetan, berriro ere, denbora, espazioa, aktoreak, harremanak eta testuingurua birdefinitu egin beharko direlarik.

Horregatik, euskal identitatea aztertzerako orduan abiapuntutzat hartzen den ikergaldera hausnartu beharra dagoela deritzot, hau garatzen duten mekanismoak aztertzeak emaitza aberatsagoak emango dituelakoan. Horrela, euskal identitatea *zelan garatzen da* erantzuteko sortzen da ikerketarako beharrezkoa den behin-behineko definizio partzial hau, identitatea *zer den* erantzuteko eta definitzeko nahia baztertuz. Beraz, perspektiba honen bidez, euskal identitatearen garapenean eragina duten estatu espainol zein frantsesak sortzen duten identitate nozioa jarraituz, erantzunik ez duen «zer da

euskal identitatea» ikergaldera ere gainditu nahi da. Izan ere, espainiar zein frantziar identitateek galdera hau objektibatu dute bai ontzat emanez edota arautuz: batetik, plano etnosoziologikoan, gizarte mailan espainola izatea *zer den* ez dela galdetzen ikus daiteke (beste barik bizitzen da eta egin egiten da, hau ontzat eman eta «naturalizat» jotzen da) eta plano akademiko bate-tik ikusita, espainiar identitatea ikerketa objektu nagusizat duten ikerketa gutxi egotea esanguratsua da. Antzeko kasuan, identitate frantsesa objektibatu nahian dabilen gobernu frantsesarena dago, non, egungo edo etorkizuneko edozein hiritarrek (eta immigranteen kasuan «benetako frantses» bilakatzeko) ezagutu beharreko «oinarriko jakintzak» ikasi eta frantsestasunaren inguruko azterketa bat bideratu duen. Horrela, plano sozial batetik kolokan jarritako identitate nazionala legeztatzen du estatu frantsesak.

Laclaren «adierazle hutsa» (2005) kontzeptua jarraituz, euskal identitatea azaltzeko historikoki eman den edozein azalpen helburu honetarako osatuga-bea dela pentsa daiteke. Autore honen arabera, adierazle bat hainbat arrazoi eta azalpenez justifikatu eta betetzen saiatuz gero, denboran zehar gero eta konplexuago eta kontraesankorrakoak bilakatzea baino ez da lortzen, eman zaizkion azalpen guztiak beraien artean tratatzen eta korapilatzen hasiko baitira, adierazleak izan zezakeen esanahi guztia galdu eta hustu egiten delarik. Euskal identitatea garatzen duten elementuen azterketaren bidez, euskal identitatea *zer da* ikergaldera ontzat eta gaindituztat emateaz gain, beste logika baten bidez beteko litzateke objektu teorikoa, era berean, hau legitimatuz eta bestelako identitate nazionalen galdera berdina erantzunez.

Horrela beraz, behin perspektiba teorikoa finkatuta, soziologiaren ikuspegitik ikergaldera zabal horren adar bat erantzun ahal izateko euskal identitatearen garapena egunerokotasunean ematen diren harremanen plano sozialean aztertzea erabaki zen. Horretarako, jarraian azalduko den ikerketa zehatzaren diseinua sortu zen, gazteek Facebooken dituzten harreman sozialean maneiatutako erreferente sinbolikoen bidez garatzen duten euskal identitatea ezagutu ahal izateko.

### **3. Ikerketaren diseinua: ikerketa objektua, subjektua eta espazioa mugatzean sor daitezkeen hipotesi eta helburuak lortzeko diseinatutako metodologia markoa**

«No hay, a mi modo de ver, nada de la feminidad que espere a ser expresado; y hay mucho en cambio, sobre las diversas experiencias de las mujeres que se está expresando y aún queda por expresarse, pero se requiere cuidado respecto a ese lenguaje teórico.»

(Judith Butler)

Ikerketa objektu nagusia euskal identitatearen garapena da eta hori lehen aipatutako definizioa oinarri izanda aztertuko da. Soziologiatik abiatuta, eus-



kal identitatearen azterketa plano sozialera eta praktika sozialetara bideratu nahi da eta, beraz, ikuspegi politiko tradizionalak edota nazio eta nazionalismoaren ideiak trabeska agertu badaitezke ere, hauek ikerketa honen gai nagusiak ez direla azpimarratu beharra dago.

Ikerketaren bidez fruitu emankorragoak jasotze aldera, euskal identitatearen garapenaren azterketa subjektu jakin batera mugatzearen beharra ikusi zen, eta ikerketa honetan gazteengan zentratzea erabaki zen: batetik, euskal identitatearen garapena aspektu sozialera mugatu nahian, gazteak gizartearen subjektu aktibo eta erreflexiboenetariko baten moduan ulertzen direlako (Bourdieu, 1990). Bestetik, motibo operazionalak kontuan izanik eta ikerketa zehatz honetara mugatuta, gazteak online sare sozialen erabiltzaile nagusiak direlako. Izan ere, azkenik, online sare sozialak dira proiektu honen ikerketa espazioa, eta horiek Facebookera mugatu ziren, ikerketa arazoa errazteko asmoz. Facebook euskal gizartean gehien erabiltzen den online sare soziala da<sup>5</sup> eta, era berean (motibo kuantitatiboez gain arrazoi analitikoak kontuan izanda), «Tuenti» eta «Twitter» ez bezala, adin tarte guztietako gazteek erabiltzen dute. Horregatik, bi arrazoi horiek kontuan izanda eta, orokorrean, hemen aurkitzen diren perfil motak aberatsagoak direlako erabaki zen batbatekotasuna eta formatu ezberdinak erabiltzea posible den «hipertexto» (Campas, 2007)<sup>6</sup> den Facebook arakatzea, eta ez beste online sare sozial bat.

Ikerketa objektua, subjektua eta espazioa mugatzeak, hipotesiak sortzeko eta helburu zehatzak definitzeko aukera eman zuen, hauek, bi espazio desberdinetan bereizi zirelarik: batetik, alor teorikoari eta bestetik ikerketa kasu zehatzari (analitikoari) dagozkion hipotesi eta helburuak formulatu dira ikerketan. Horrela, kasu zehatzaren azterketaren bidez lortutako emaitza partzialak beste plano batean aztertu eta konparatzeko aukera izango da, bi planoak uztartuz etorkizunean erantzun beharreko galdera eraikitzaileak formulatzeko aukera izango delarik.

Plano teorikoan kokatuta, abiapuntu gisa euskal identitatearen gaia jakintza eta ikergaldera desberdinen bidez aztertua izan bada ere, egungo gizarte ereduak kontzeptuen egokitzapena eta teorien birformulatzeko eskatzen duela ikusi zen<sup>7</sup>. Horrela beraz, aurreko atalean aurkeztutakoa kontuan izanik, egungo euskal gizartean identitate nazionalaren inguruko erantzun maitzatuak jasotzeko formulatu beharreko ikergaldera hausnartu nahi izan da.

---

<sup>5</sup> Eusko Jaurlaritzak egindako «Guía de redes sociales» informarean arabera, d.g.

<sup>6</sup> «Hipertestua» besteak beste testua, irudia eta bideoa erabiltzea posible den espazioa bezala aurkezten da liburu horretan.

<sup>7</sup> Garaia izendatzeko orduan eztabaida ugari egon arren, modernitatearen osteko garaia dela baieztatu daiteke eta beraz hemen, gizarte post-moderno hitza erabiliko da. Hau etengabeko mugimendua, dinamikotasuna eta dikotomien gailentzea nagusi den eta instituzioen indargabetze eta subjektu erreflexiboaren empoderamenduagatik («empowerment») bereizten dela defendatuz (Bauman, 2003; Beck & Beck-Gernsheim, 2003; Beck, 2006; Jameson, 1996; Sennet, 2006, 2007).

Abiapuntu teoriko horretatik, euskal identitatearen garapenean parte hartzen duten agenteak aldatu egin diren ala ez aztertu nahi izan da. Hau da, beste garai batzuetako kolektibotasunaren garapenean logika (non batez ere, «gu»a talde barneko harremanen bidez eta «haiek» batengandik bereziz garatzen zen) mantendu edota aldatu diren planteatuz. Horrela, tradizionalki taldea garatu duten bi agente horietaz gain, gaur egungo euskal gizartean berriak agertu diren ala ez ezagutu nahi da. Era berean, bigarrenik, identitatearen garapenerako bere biziko garrantzia duten erreferente identitarioak arakatu dira Facebookeko ikerketa kasu zehatz honetatik abiatuz. Horrela, Ander Gurrutxagak aztertutako euskal gizartea biltzen eta inguratzen zuen «dosel sakratua» (1990) hausnartu da, egun, bere garaian zuen balioa mantentzen duen jakin ahal izateko. Ildo beretik jarraituz, indibidualizazioa eta indibidualismoa nagusi diren garai honetan, euskal identitatea osatzen duen euskal komunitatea edota kolektibitateak duen izaera irudikatu nahi izan da Facebookeko kasua aztertuz.

Ikerketa zehatzak mugatzen duen plano analitikora pasatuz, maneiatzen den hipotesi nagusia hurrengoa da: Internet eta online sare sozialen agerpenarekin XXI. mende hasierako euskal gizartean leku geografikotik kanpo ere identitate nazionala garatzea posible dela. Egun, identitate nazionalaren garapena *lurralde* kontzeptu antropologikoaren arabera mugatzearen beharra ikusten da, honek irudikatzen duen espazioa muga fisiko eta geografikoak gainditzen dituen harreman esparru sinbolikoa delarik. Hipotesi hau konfirmatuz gero, orain arte identitate nazionala garatzeko leku geografiko baten beharra kolokan jarriko litzateke. Izan ere, Euskal Herritik kanpo euskal identitatea nola ulertzen eta garatzen den azaltzen duten diasporaren inguruko ikerketek (besteak beste Oiarzabal, A. & Oiarzabal, P., 2005), identitatearen garapena leku geografiko jakin batean ematen dela baieztatzen dute.

Hipotesi analitiko honetatik abiatuz, hau demostratzeaz edo errefusatzeaz gain, beste lau helburu definitu dira. Aurrez aurrekoak ez diren harreman mota hauetan, espazioen gestioa aztertzeak bere biziko garrantzia izan deza keela uste da, izan ere, plano desberdinak uztartzen diren eremu honetan espazioaren kudeaketaren araberrako praktika identitarioak emango direla pentsa daiteke. Horrela, offline eta online espazioen arteko eragina neutralizatuz, lehenengoak identitatearen garapenean duen indarra aztertu ahal izango da eta era berean gazteriak espazio publikoa, pribatu eta intimoa zelan gestionatzen duen aztertu ahal izango da: besteak beste etxeko gela, kalea, edota Facebookeko aplikazio desberdinak zelan ulertzen eta gestionatzen dituen eta espazio desberdinen euskal identitate zelan garatzen duen aztertzea.

Era berean, ikerketa espazioaren inguruko azterketak urriak izanik, Facebook zer den ulertu beharra dago, hau da, sare sozial hau noiz erabiltzen den, non erabiltzen den, nortzuk erabiltzen duten eta zelan erabiltzen den

galderen erantzunen oinarri sendo bat ezinbestekoa da ikerketa zehatzean aurrera egin ahal izateko. Horrela, espazio eta testuingurua ezagututa, geroa aztertuko diren harremanak eta praktika identitarioak argitu ahal izango dira, hauek, euskal identitatearen garapenaren berri emango dutelarik ikerketaren galdera nagusiari erantzuna emanaz. Bukatzeko, Facebooken ematen diren praktika hauen bidez maneiatzen diren erreferente identitarioak identifikatu nahi izan dira hauek sortzen duten komunitate sentimendu mota ezagutzuz, mundu offlinearekin alderatzeko asmoz: komunitate sendoa, malgua edota iraunkorra den ezagutu ahal izateko eta egungo euskal gizartean «gutasuna» zelan bizi den erantzuteko.

**Taula I**

Sakoneko elkarrizketak aldagaien arabera

Elkarrizketa	Sexua-Adina-Herrialdea	Inguru euskalduna	IKT harreman
Lehenengoa	25 urte, mutil arabarra	Bai	Altua (ez muturrekoa)
Bigarrena	19 urte, neska bizkaitarra	Ez	Baxua (ez muturrekoa)
Hirugarrena	23 urte, mutil lapurtarra	Bai	Baxua (muturrekoa)
Laugarrena	26 urte, neska gipuzkoarra	Ez	Altua (muturrekoa)

**Taula II**

Eztabaida taldeak aldagaien arabera

Eztabaida taldea	Sexua-Adina-Herrialdea	Inguru euskalduna	IKT harreman
Lehenengoa:	24 urte, neska bizkaitarra	Bai	Altua (ez muturrekoa)
Unibertsitateko ikasleak	21 urte, mutil bizkaitarra	Bai	Baxua
	21 urte, neska bizkaitarra	Bai	Altua (muturrekoa)
	23 urte, neska gipuzkoarra	Ez	Altua
Bigarrena	23 urte, neska gipuzkoarra	Bai	Altua
	23 urte, neska gipuzkoarra	Bai	Altua

Hipotesiak onartzeko edota errefusatzeko eta helburuak lortzeko, 2010. urtean diseinatutako hasierako planteamendu metodologikoan lau aldagai neutralizatu ziren: sexua, adina, IKTekiko gazteen harremana edo ezagutza eta gazteen offline mundua euskalduna zen ala ez (hau, euskaraz hitz egitea edota alderdi politikoaren izaera euskalduna bezalako irizpide objektiboak eta batez ere, gaztearen kokapen subjektiboa kontuan izanda egin zirelarik). Aldagai hauek moldatuz eta aurretiaz aipatutako helburu analitikoak lortze aldera, lau sakoneko elkarrizketa eta bi eztabaida talde burutu ziren. Ikerketa

gai zehatzarekiko informazio aberatsagoa lortze aldera, lehenengoa, inguru euskalduna mantenduz eta bigarrena IKTekiko harreman altua mantenduz diseinatu zirelarik.

Aplikaturako teknika kualitatibo hauek teknologia berriak eskaintzen eta eskatzen duten beste mota bateko teknikekin uztartzea erabaki zen: etnografia digitala deritzonarekin (Hine, 2004; Ardévol, Domínguez & Estalella, 2008). Etnografia mota hau tradizionalarekin alderatuz, teknika mota honek dituen ezaugarri nagusiak hauek dira: ikertzaileak ikerketa espaziora egin beharreko hurbilpena (beste etnografia mota batzuk ez bezala, ez dago fisikoki inora joan beharrik eta ez dago beste herri batera bidatzeko beharrik), honen aurkezpena (etikak eta ikertzailearen aurkezpenak bere biziko garrantzia du aurrez aurrekoak ez diren harremanetan), ikerlariaren esosatze maila (Interneten bidez ikertuek, ikertzaile zein ikerketaren inguruko iritziak egin dezakete hauek emaitza finala baino lehen ere ebaluatuak izan daitezkeelarik) eta ikerketa espazioa eta ikerketa koadernoak uztartzea dira (izan ere, Facebooken bidez jasotako datuak Facebooken bertan erregistratu daitezke).

Horrela, teknika kualitatiboen bidez jasotako gazteen testigantza eta diskurtsoak osatze aldera, hauetatik abiatuta, Facebooken behaketa ez parte hartzailea lehenengo eta parte hartzailea, geroago, egin ziren. Euskal identitatearen ulerkera tradizionala kolokan jartzen zuten praktikan arreta berezia jarri zen, hauek, zenbait talde bereziren baitan negoziaturako testu eta irudi bezala ulertzen zirelarik. Besteak beste, «Nik ere polo soberanista dasatu nahi dut beroa egiten duenean», «Barbie borroka» edota «Pop ikonoen aldare euskalduna» taldeetan murgilduaz eta hor ematen den euskal erreferente identitarioen negoziaketa behatuz, euskal identitatearen inguruko hausnarketa garatu ahal izan da.

#### **4. Ikerketa kasu zehatza: euskal identitatearen garapena gazteek Facebooken dituzten harreman sozialen bidez**

Ikertu gabeko espazio baten aurrean egonda, lehen urratsa, Facebook bezalako espazio zabala mugatzea izan zen. Horrela, online sare sozial horretan aurkitu daitezkeen elementu guztietatik hiru elementu zehatz arakatu ziren soilik: testua, argazkiak eta taldeak. Izan ere, plano hauetan eta hauen bidez, euskal gazteek sinbolo ezberdinak formatu desberdinetan negoziatzeko aukera dute eta beraz, praktika sozialen bidezko euskal identitatearen garapena aztertzeo abiapuntu egokia zela erabaki zen<sup>8</sup>.

---

<sup>8</sup> Atalaren hasierako momentu honetan agertzen diren gazteen testigantzak eta irudiak beraien baimenarekin jarri direla azpimarratu beharra dago, era berean, ikerketa honetan parte hartzen ari diren gazte guztiei eskerrak eman nahiko nizkieke.

Aztertutako lehen elementua testu idatzia izan zen eta lehenik eta behin, hizkuntzari bere biziko garrantzia eman zaiola azpimarratu beharra dago: euskal identitatearen erreferente sinboliko sozial nagusienetarikoa den heinean, Facebooken bidez ematen diren harremanetan ere offline munduan duen nagusitasuna izango zuela aurre suposatu zen. Horrela, euskara euskal identitatea garatzen duen erreferente gisa aztertu dut ikerketa soziologiko honetan eta beraz, ez da beste ikerketa batzuetan bezain ondo erreparatu aspektu soziolinguistikoan, adibidez, Soziolinguistika Klusterrak *Nerabeak, interneteko sare sozialak eta euskara* (2011) informean egin bezala.

Perspektiba honetatik, erabiltzaileak Facebookekin duen lehen harremana, online sare sozial horretan erregistratzerako momentuan da eta beraz, testuaren azterketa dimentsio sistemiko batetik hasi beharra dago. Plano horretatik Facebookek euskaraz erregistratzeko aukera ematen duela baieztatu daiteke eta horregatik, sistemak berak hizkuntza erabilera mota bat baimentzen duela esan ere<sup>9</sup>: sistemak ez du gaztelaniaz edo frantsesez komunikatzeko derrigortasuna sortzen ezta euskaraz aritzea debekatzen. Hala ere, ikuspegi sistemiko honetatik ere kontrako egoera bat aurkitzen du erabiltzaileak, izan ere, Facebookek egun, erabiltzailearen identitate nazionala euskaldun bezala definitzeko aukera ez du ematen. Beraz, lehen pausu honetatik hasita, eragin estruktural-instituzionalak ezarrita euskal identitatea garatzeko lehen zailtasuna aurkitzen du gazteak.

Puntu honetan, batetik, Facebookek duen eragin instituzionala ikusita, Internet askatasunez eraiki daitekeen espazio huts bat denaren ideia baztertu beharra dago eta, bestetik, euskal identitatea ulertzeko proposatuko defini-

## 1. Irudia

### Facebooken erregistratzeko leihoa


<sup>9</sup> Honekin ez da esan nahi Facebook euskaraz aritzea bultzatzen duenik, hemen, sistemak ematen duen aukera guztien artean batean sakondu nahi izan da: tresnak onartzen duen erregistratzeko eta nabigatzeko hizkuntza. Era berean, azpimarragarria da berez objektu pasibo moduan ulertu daitekeen Facebookari askotan ematen zaion subjektu izaera. Hau, Facebook espazio eta tresna izatearen ondorio gisa ulertu daiteke, izan ere, bete daitekeen espazioa izateaz gain, egiten edota pentsarazten duen aktorea ere bada.


zioan azpimarratu bezala, euskal identitatearen garapenaren azterketa eragin sozio-historiko-estrutural honen baitan egin beharra dagoela argi erakusten du. Azkenik, Perisek Internet eta identitate nazionalaz esandakoa gogoratu, online harreman identitario hauetan estatu espainiar zein frantsesak izan dezaketen eragina neutralizatu beharra dago, hemen, «Haiek-Gu» agentea aurkitu daitekeelarik. Beste era batera esanda, plano eta perspektiba sozialetik euskal identitatea «gutasun» modura garatzen duten praktikak, kanpo logika eta eragin batzuek baldintzatzen dituztela azpimarratu beharra dago.

Hizkuntzaren azterketara bueltatuz dimentsio sozialetik aztertuz eta erabiltzaile arteko harremanetan arreta erreparatuz, euskal gazteek post edota elementuen azpiko komentarioen bidez mantentzen dituzten harreman testualetan euskaraz ere aritzen direla ikusi da behaketa ez parte hartzailearen bidez. Hemen, offline errealitateak onlinean duen eragina gogoratu, elkarriketatutako gazteen arabera, kaleko egunerokotasunean duten hizkuntza erabilera Facebooken islatzen dutela azpimarratu beharra dago: familiarekin, ikastetxean edota lagunekin dituzten harremanetarako erabiltzen duten hizkuntza erabiltzen dute Facebooken ere. Kasu honetan, ikusitakoaren arabera, offline munduan euskaraz aritzeko jarrera onlinean mantentzen dute euskal gazteek.

Mahai gainean jarritako bi dimentsioak uztartuz (tresna bera eta horren bidez gazteek duten praktika soziala), euskal gazteek Facebooken dituzten harremanak eta bereziki, horren bidez erabiltzen duten hizkerak, hizkuntzan eragin zuzena izatera hel daitezkeela pentsatzera eraman dezake. Landa lanean elkarriketatutako gazte guztiak hitz tekniko espezifikoak erabiltzen zituzten euren bizipenen eta online harremanen berri emateko: euskara bere eginez eta euskararekin jolastuz, online harreman sozialek mundu ikuskeraren berri ematen duen hizkuntzan eragina duela ikusi ahal izan da. Horrela, online etnografiak baimentzen duen behaketa parte hartzailearen bidez eta zehazki gazteek lagunen hormetan idatzitako postak edota komentarioak arakatuz (haiek baitziren erabiltzaileen baimenaz aztertzeko zegoen harreman testual bakarra, mezu pertsonal zein Chat pribatuetan sartzeko aukerarik ez nuelarik), sakoneko elkarriketatutako jasotako informazioa alderatu ahal izan zen.

Orokorrean, dinamikoa eta motza den harreman testuala dela baieztatu daiteke eta lagunak idatzitakoari erantzun edota «altxatutako» bideo edo ar-



**Aiora Mujika**  
 Gar Gartzot pelikula ikusi det eta pilla bat gustatu zait! Kondaira izugarria da, musika earra ta Zuberoako euskera entzutea plazerra! Ikusteko modukoa!!!  
 Atsegin dut · Iruzkina · Elkarbanatu · Ostirala(e)an, 21:36e(t)an · 

## 2. Irudia

Harreman testualak, euskera eta euskal identitatearen garapena

gazki bat komentatzea da honen betebeharr nagusia: hizkera informalarekin idatzitako mezu ez oso hausnartuak dira bat-bateko komentario hauek. Modu honetan, hizkuntzaren erabilera informal baten bidez, behatutako gazteek, hitzak laburtu, ortografikoki gaizki idatzi edota online munduarekin lotutako hitzak sortu eta erabiltzen dituzte. Beste modu batean esanda, euskal gazteek euskararekin jolasten dute hizkuntzaren zuzentasuna alde batera utziz, hau, freskotasunez erabiliz: neska honek idatzitako postean ikus daitekeen moduan batetik, hitz egiten duen eran idazten du, «det» edota «pilla» bezalako hitzak erabiliz eta bestetik, euskararen arauak hautsiz, «earra» bezalako adjektiboak moztzen ditu.

Harreman testualen azterketa honetan hizkuntzaren garrantzia zeharkakoa dela gogoan izanik, arakatutako bigarren elementua erabiltzaileen izen deiturak izan dira. Facebooken erregistratzeko izen bat jartzea ezin bestekoa da eta hauetariko askok izaera euskaldun baten berri ematen dute bai euren izen propio euskaldunen bidez («Ximon»), bai lurraldetasunari erreferentzi egiten dioten izenen bidez («Ximon Arrasatekoa») eta bai euren euskal identitate sentimendua edota kolektibitate sentimendua modu esplizitu baten azpimarratuz («Ximon euskalduna»). Horrela beraz, Facebooken euskaraz aritzea edota garrantzi gutxiko hautuak diruditen erabiltzaile izena hautatzeak euskal identitatea garatzea suposatu dezake lurraldetasun edota kolektibitate sentimendua indartzearen bidez. Izan ere, mundu offlinean bezala, norberaren burua euskal izen propio baten bidez izendatzean euskal sentimendu baten berri ematen da eta gainontzeko kideekin euskaraz aritzean euskal identitatearen garapen bat egiten da. Baina mundu offlinean ez bezala, norberaren izena nahi bezala izendatzeko aukera dago, izen propio euskaldunak ematen duen euskal sentimenduaz gain, euskal gazteek Facebooken esplizituki euskal izaera aldarrikatzen dutelarik.

Facebooken eta Facebookeko harremanen bidez euskal identitatea nola garatzen den jakiteko euskal gazteek altxatzen dituzten argazkiak aztertu nituen. Aipatu berri den erabiltzaile izenez gain, Facebook kontua sortzerako orduan gainontzeko erabiltzaileek ezagutzeko balio izango duen perfileko argazki bat jartzeko aukera du gazteak. Mota askotako perfileko argazkiak daudden arren eta euskal identitatea garatu dezaketen argazkiak asko diren arren, ikerketaren hastapen momentu horretan kasu oso zehatz eta oinarritzkoetara mugatzea erabaki nuen: gazteek erabiltzen dituzten euskal sinbolo (lauburuak, arrano beltzak, ikurrinak), leku geografiko edota paisai eta aldarrikapenak («nazio bat, selekzio bat») agertzen diren perfileko argazkiak izan ziren aztergai. Aztertuak izan ez diren arren, bereziki interesgarriak dira azken aldian indarra hartzen ari diren «txapa» moduko ikurrak, hauek argazkiaren alboan jarriz gazteek bere aldarrikapenen berri ematen dutelarik.

Harreman testualen kasuan, esan bezala, zenbait gaztek gainontzeko erabiltzaileek eurekin izango duten lehen harremana (perfileko argazkia) euskal



### 3. eta 4. Irudiak

Perfileko argazkia, «txapa»k eta euskal identitatearen garapena

erreferente identitario baten bidez izatea erabakitzen dute. Beste era batera esanda, euren burua Facebooken ordezkatzuko duen irudia euskal sinbolo bat izatea hautatzen dute: identitate pertsonala sentimendu kolektibo bategatik ordezkatzuz, beste kide euskaldunek horrela ulertuta eta konpartituta, perfileko argazkiaren bidez euskal identitatea garatzen dutelarik. Euskal identitatearekin lotuta dauden aldarrikapenak euren profileko argazki bezala erabiltzean edota «Euskal Herriko selekzioa», «Euskal Herrian Euskaraz» edota «Independentzia» fotografikoki adieraztean, identitate nazionala gartzzen dute.

Orokorrean, beraz, gazteek euskal sinboloak bereganatuz eta hauek Facebooken bere lagunei publiko egitean euskal identitatearen garapena ematen dela ikusi da online etnografia bidez. Azkenik, azpimarragarria da perfileko argazki hauen bidez behatutako euskal gazteek inguruarekiko duten harremana, izan ere, askok eta askok mendia, itsasoa edota zuhaitzak euren errepresentazio argazki gisa hautatzen dituzte. Erabiltzaileek Facebooken publikatutako argazki mota hauen bidez euskal identitatea lurraldetasunari erreferentzia eginaz garatzeaz gain, naturak eta ama-lurrak euskal imaginario kolektiboan duen indarra erakusten du: herria eta honekin harremana duten elementuek euskal gazteen Facebookeko harremanetan presentzia handia baitute.

Ikerketa honetan aztertutako hirugarren eta azken elementua Facebooken sortzen diren taldeak izan dira, hauek interes berezia sortzen dutelarik: hemen aurkitu izan ditut euskal identitatea beste modu batean ulertzen eta garatzen duten online harreman adierazgarrienak. Erabiltzaileek euskal identitatea garatzen duten mota askotako taldeak sortzen dituzte Facebooken (kirolak, telebista edota musikarekin lotutakoak adibidez), baina bereziki ga-



rrantzitsuak dira ikerketa honentzat euskal identitatea gai zentrala izanik hau modu banal batean ulertzen eta birsortzen duten taldeak.

Izan ere, testu eta argazkietan ez bezala, taldeetan karga emozional indartsua edota euskal gizartean duten eraginagatik jorratzen konplikatua diren gaiak aurkitu ahal dira: «barbie borroka» edota «Nik ere polo soberanista dastatu nahi dut beroa egiten duenean» kasu. Hemen, euskal identitatea ulertzeko eta garatzeko modu banal bat ikusi daiteke, izan ere, euren buruez barre eginez eta euskal gizartean ematen diren hainbat egoera irrigarri utziz identitate nazionala garatzen dute talde hauetan. Era berean, euskal identitatea garatzeko era berezi honetaz gain tradizionalak diren beste zenbait talde ere aurkitu dira Facebooken, aldarrikapenen edota alderdien kasuak adierazgarrienak direlarik.

Facebookeko talde hauek sortzen duten kolektibotasun sentimenduari dagokionez, hauen kide izateko bete beharreko «rito de paso» edota «iragate erritua» Facebookeko orrian agertzen den «atsegin dut» botoia zalpaltzea da. Klik egitea beraz komunikatzeko modu bat bezala erabiltzen dute gazteek, hitz egin gabe, argazkiak jarri gabe, soilik botoia sakatuz eta klik eginez euren gustuen eta sentimenduen berri ematen dutelarik. Ekintza honen bidez ere euskal identitatea modu horretan garatu dezakete gazteek, Facebooken euskal identitatearekin lotutako taldeen kide eginez edota hauek atseginez ikusten dituztela adieraziz. Beraz, behaketa parte hartzailean ikusi den moduan, bizitza offlinearekin alderatuz kolektibo hauek izaera lausoago bat dutela deritzot: bai hauetan sartzeko eta hauetatik ateratzeko egin beharreko ekintzagatik (klik egitea), bai taldean mantentzeko ez dagoelako inongo jarduera berezirik egin beharrik (talde horretatik berriz ere ez agertu arren eta taldekideekin harremana mantenu ez arren horren kide izateko aukera baitago) eta bai taldearekiko eta taldekideekiko izan beharreko konpromiso maila baxuagoa delako taldea uzterako orduan.

Bukatzeko, elkarrizketatutako gazte baten testigantza bereziki argigarria da itxuraz garrantzi gutxikoa den taldea «atsegingarri izate» honek euskal gazteen artean eta euskal identitatean duen indarra azpimarratzeko: mutil honek, 2010eko udan espainiar futbol selekzioak mundiala irabazi zuenean bere Facebookeko lagunetako bat ezabatu behar izan zuen hau garaipen hori goraiatzeko zuen talde baten jarraitzaile egin zelako. Anekdotak hau azaldu-tako zenbait kontzeptuen bidez aztertuz, online eta offline errealitatean ar- tean ematen den harremana ikusi daiteke, izan ere, elkarrizketatutako gaztea Facebooken laguntasuna ukatu zion gaztearekin kalean aurkituko baitzen. Baina era berean, eta atal honetan garrantzitsuagoa den gaia, gazteek Facebooken dituzten harreman sozialetan maneiaturako erreferente sinbolikoen bidezko euskal identitatearen garapenaren adibidea da.

## 5. Ikerketaren tentsioak, ondorioak eta aurrera begirakoak

Planteatutako ikerketa arazoari hainbat ondorio eta erantzun emateko aukera dago orain eta are gehiago, ikerketa proiektu batean garrantzitsuagoa dena, hasieran planteatutako dudak baino aberasgarri eta konplexuagoak diren galderak formulatu daitezke orain.

Ondorio hauek hiru atal desberdinetan aurkeztuko dira: batetik, marko metodologikoari lotutakoak non, Facebooken egindako lehen hurbilpen honen bidez etorkizunean online mundua modu eraginkorrago batean aztertzeko zenbait klabe aurkituko dira. Bigarrenik, ikerketa zehatzaren bidez ondorioztatutako emaitza analitikoak aurkeztuko dira Facebooken euskal identitatearen garapenaren inguruko zenbait ideia aurkeztuko direlarik; azkenik, ikerketa objektu nagusia den euskal identitatearen inguruko hainbat ondorio teoriko plazaratuko dira ere.

Azpimarratu beharra dago, ondorio hauek etorkizuneko ikerketentzako abiapuntu teorikoa direla eta beraz, hemen emaitza borobil gisa aurkezten den hau etengabe kuestionatu eta gaingitu beharko dudala euskal identitatearen eta Facebookaren gaitan sakondu ahal izateko

### 5.1. Marko metodologikoari lotutako ondorioak

Marko metodologikoari dagokionez, ikerketa zehatz honek, lehenik eta behin, etorkizunean zuzendu beharreko aldagai batzuen indar gabezia eta bestetik, beste aldagai batzuen beharra agerian utzi du. Egokitasun falta hau «IKTekiko harremanetan» eta «inguru offline euskalduna» aldagaietan ikusi daiteke: lehenengoa, gazte gehienek IKTekiko harreman altu bat izanik ez delako batere diskriminatzailea. Bigarren aldagaiak ordea, marko teoriko eta metodologikoaren arteko egokitasun falta bat agerian uzten du: inguru offline euskalduna ezagutzeko erabilitako irizpide objektiboek (gehienak instituzioekin lotuak), marko teorikoan proposatutako euskal identitatearen definizioarekin talka egiten dute, zeinen arabera euskal identitatearen garapena ezagutzeko aztertuko den esparru nagusia harreman sozialena da. Bi aldagai hauek baztertzean, diskriminatzaileak edota informazio oparoa eman dezaketen beste bi aldagai maneiatzeari planteatu zen: jaiio lekua eta gaztearen bizi lekua.

Lehengoaren bidez Euskal Herri osoko herrialdekako analisi konparatibo bat egin zitekeen eta bigarrenaren bidez, espazioen gestioa modu sakonago batean aztertuko litzateke (bizi lekua edota emantzipazioa kontuan hartuz). Hemen, berriro ere, ikerketa egokia sortzeko jarraitu beharreko mugapenaren logika agertzen da, izan ere, Facebook eta euskal identitatea aztertzen duen ikerketarik ez dagoenez, lehenengo pausu batean irakurketa orokor bat ema-

tea erabaki delarik. Horregatik, analisi konparatiboak bi ikerketa objektuen oinarri sendoa finkatzean egitea pentsatu da, hauek datozen urteetan egiteko asmoz. Horrela beraz, ikerketaren miatze momentu honetan, sexua eta adinaz gain, hizkuntza da momentu honetan Facebookeko harremanen bidez gazteek euskal identitatea zelan garatzen duten azaltzeko erabil daitekeen aldagai diskriminatzaile eta aberats bakarrenetarikoa.

Puntu honetan, datozen urteetan kontuan izan beharreko tentsio bat agertzen da, izan ere, maila teorikoan euskal identitatearen definizioa euskara elementu bakartzat duen perspektiba gainditu nahi den arren, Facebooken egindako ikerketak maila enpirikoan hizkuntzaren nagusitasuna eta hegemonia erakusten du. Korapilo hau askatze aldera eta kontrastatu beharreko hipotesi gisa zera planteatzen da: euskal identitateak egindako ibilbide historikoak eta honen inguruan hainbat ikerlarik egindako planteamendu oparoei esker, egun, ikerketa objektu hau plano konplexu eta dimentsio desberdinetan aztertzea posible egiten du. Era berean, euskal identitatearen garapenaren inguruko planteamendu hauek berria eta ia aztertu gabea den tresna baten bidez zelan ematen den arakatzerakoan, oinarrizkoak diren elementuen azterketatik abiatu beharra dago: erabiltzaileek eurek pisu gehien duten errekonozimendu eta garatze logiketan mugitzen baitira, Facebook aztertzeko orduan hizkuntzaren nagusitasunak erakusten duen moduan.

## 5.2. Arlo analitikoari lotutako ondorioak

Aurreko atalaren ildotik, ondorioen bigarren multzoa ikerketa zehatzari lotutako emaitzak dira eta aztertutakoaren arabera, egungo gizartean euskal identitatea leku geografikotik kanpo garatzeko aukera ere badagoela eta beraz hipotesi analitiko nagusia konfirmatzen dela azpimarratu beharra dago. Aurrez aurrekoak ez diren gizarte harreman hauen bidez euskal identitatea garatzeak, beste garai batzuetan determinatzailea zen estatu nazionalaren muga transformatu den elementua dela egiaztatzen da. Beraz, lurraldetasunaren eta honen inguruko logika hausnartu beharra dago honek identitate nazionala garatzeko duen eragina aztertzeko orduan. Ikerketan aztertutako dimentsio sozial honetatik, Euskal Herriaren inguruko egungo nazio argazkia egiterako orduan, «lurralde» kontzeptu antropologikoa «espazio geografikoa» baino hobeto irudikatu daitekeela proposatzen da: honen arabera, Interneten bidezko praktikek erakusten duten moduan, mugak harreman instituzionalez gain, erlazio sozial eta sinbolikoek zedarritzen dituztela proposatu nahi da.

Euskal identitatea garatzen duten online harreman hauek beti ere leku geografiko batetik burutzen direla azpimarratuz, Euskal Herria ez den beste lurralde batetik egin daitezkeela ikusi da. «Diaspora» kontzeptuak lurraldetasunaren muga hauek kolokan jarri bazituen ere, online munduko kasuan

ez bezala, harreman sinboliko eta sozial hauek leku geografiko jakin bat eskatzen dute (euskal etxeak kasu): hauei «8. lurraldearen» ideia lotu zaielarik. Ikertutako kasu honetan ordea, Facebooken emandako harremanak offline leku batetik ematen badira ere, Diasporaren kasuan ez bezala, erabiltzaileek leku ezberdinetatik konektatu daitezke. Kasu honetan beraz zortzigarren lurraldea online munduarekin lotzea ez litzateke zientifikoki egokia: harreman hauek ez dutelako lurralde zehatz eta iraunkor bat mugatzen. Online harreman hauen bidez mugatzen den espazioa identifikatzea da aurrera begira mahai gainean dagoen erronka nagusienetarikoa.

Ikerketa honen bidez markatutako helburu zehatzei dagokienez, lehenik eta behin Facebookeri euskal gazteek ematen dioten hainbat erabilera ezagutzea eta ulertzea lortu da: zer den, nork erabiltzen duen, noiz eta non erabiltzen den erantzun baita artikuluan zehar. Laburbilduz, Tuenti eta Twitter ez bezala adin eta perfil sozial guztietako gazteak aurkitu ditut Facebooken eta mugikorraren bidezko konexioak agertzen badira ere, batez ere arratsaldetan eta etxetik konektatzen dira egun euskal gazteak. Beste alde batetik, euskal identitatea garatzeko hainbat modu identifikatu dira ikerketa kasu zehatzaren bidez, hauen artean, testua, argazkia eta taldeak identifikatu direlarik. Online munduko hizkuntza erabilerari dagokionez, gazteek Facebooken bidez dituzten harremanekin hau erreferente sinboliko eta identitario gisa transformatzen dutela esan daiteke: askotan arauak alde batera utziz eta euskarara freskotasunez erabiltziz.

Era berean, ikerketa zehatz honen bidez argi geratu den auzia eta berri ere azpimarratu beharra dagoena, offline munduan gertatzen den bezala, euskal identitatea garatzeko eta gazte erabiltzaileek euren artean euskaldun bezala identifikatzeko hizkuntzak jokatzeko duen paper garrantzitsua da.

Bestetik, Facebookeko taldeek euskal identitatea modu lausoago batean garatzeko aukera ematen dutela esan daiteke, izan ere, hau garatzen duten aldarrikapen taldeen parte izateko igaro beharreko erritu bakarra «atsegin dut» botoia sakatzea da: taldetasunaren eta orokorrean, euskal sentimendu kolektiboaren konpresio malguago bat ematen duelarik. Orokorrean, egungo gizartean euskal identitatea garatzeko beste modu bat ikusi da ikerketa honetan zehar: Facebook bidezko gazteen arteko harreman honetan, eraikuntza identitarioan egunerokotasuneko praktikek duten garrantzia azpimarratu beharra dagoelarik. Horregatik, datozen urteetan landu beharreko ideia gisa, harreman hauek euskal identitatea bera ere birformulatzea eta birpentsatzera eramaten duten hausnartu beharra dago. Azkenik, datozen ikerketetarako erronka gisa, behin «iragate erri-tua» ezagututa, taldearen kide izaten jarraitzeko izan beharreko praktika multzoa ere aztertu beharko da, horrela, «gutasunaren» erreprodukzioa zer nola ematen den ezagutu ahal izateko.

### 5.3. Arlo teorikoari lotutako ondorioak

Bukatzeko, ikuspegi orokor eta teoriko batetik, Facebookaren inguruko ikerketa honek euskal identitatearen inguruko hainbat ondoriotara heltzen lagundu du. Horrela, ikerketa kasu zehatzetik abiatuta, lehenik eta behin, hipotesi teorikoari eutsiz, euskal identitatea aztertzerako orduan emaitza mamitsuak lortzeko formulatu beharreko ikergaldera hausnartu da. Euskal identitatea *zer* den ikergalderatik, *zelan* garatzen dena igaro gara artikulu honetan zehar; arazoa, ordea, bi iker galderen planoak eta erantzunak nahastean aurkitu da. Horrela beraz, gizartean egiten diren praktika sozialen azterketa soilarekin identitatearen inguruko hutsune teorikoa betetzea ezinezkoa izango dela proposatu da.

Soziologikoki identitatea ezin da praktika multzo bat bailitzan definitu: hala eginez gero, identitatea *zer den* bilatzen duen esentzialismo batetik, identitatea *praktiken bitartez definitzea* bilatzen duen «konstruksionismo esentzializatu» batera pasako bailitzateke. Horren ordez, identitatearen nondik norakoak ulertzeko, oinarri teoriko on batetik abiatuz, praktika sozial eta diskurtsiboak eta hauek ematen eta biltzen dituen testuingurua aztertu beharko litzateke lehenik; ondoren, bertatik ateratako erantzuna, kontzeptual eta teorikoki dagokion ingurura mugatu beharko zelarik. Azkenik, identitatearen inguruko erantzun hori beste leku eta une baterako antzua izango dela onartu beharra dago, ateratako emaitzak aztertu den kasu zehatz horretarako baino ez baitira balagarriak izango. Horregatik, artikulu honetan lehenik eta behin euskal identitatearen definizio bat proposatu da, hau, ikerketa objektua aztertzeko abiapuntu bezala ulertu delarik; bigarren pausu batean, hau kritikatu eta gauditu beharko dela jakinaren gainean egonda, euskal identitatearen ulerkeran aurreratu ahal izateko.

Horrela beraz, identitatearen ikerketa ardatz duten bestelako lanen perspektiba barneratuz eta ikerketa kasu honen bidez ikusitakoaren arabera, identitatearen erlaziozko izaeraren eta izaera kontestualaren garrantzia «nork-nori-non» hitz jokoaren baitan aurkeztea proposatu nahi da datozen ikerketetarako. Euskal identitatea aztertzeko formulatu beharreko arazoei irtenbide bat proposatuz, honen eraikuntza eta irudikapena, «nork» garatzen duen, «norekin» edo zerekin egiten duen eta zein testuingurutan kokatzen den edota «non» ematen den elementuek baldintzatzen dutela uste baita. Hori dela eta, Facebooken inguruan egindako ikerketa zehatzetik abiatuta, euskal identitatea sentitzeko, irudikatze eta eraikitze modu anitz topa daitezkeela ikusi da: euskal identitate kolektiboaren barnean sinbolo desberdinen negoziaketa egiten duenaren, zeinekiko egiten duenaren eta non egiten duenaren arabera, hau, modu batean edo bestean irudikatuko delarik.

Honen bidez, ordea, ez da identitate euskaldun indibidualizatu, pertsonal edo psikologizista baten molderik defendatu nahi; horren ordez, eragin

sozio-historiko-estrukturala eta izate kontingente, dinamiko, erlaziozkoa eta kontestuala kontuan izanik, praktketan eta uneetan oinarritzen den euskal identitatearen analisi bat bultzarazi nahi da. «Nork-nori-non» ideari jarraiki, planteamendu honen gakoa euskalduna «izate»-an baino euskalduna «egite»-an dagoela ondoriozta daiteke, euskal identitatea zertu sinboloen negoziaketaren bitartez eta zertu praktiken bitartez eraikitzen den ikusiko baita horrela. Identitatearen ikuskerak malgu honek subjektua une berean «gauza bat eta horren kontrakoa» izatea ahalbidetuko du, dagoen une, tesuinguru eta harremanen arabera identifikazio euskaldun desberdinak irudikatzeke gai izango delarik.

Ikerгалдерaren lehen ondorio hau borobiltzeko eta *izate* batetik *egite* batera pasatzeko erabilgarria izan daitekeen «nork-nori-non» tresna proposatzeaz gain, identitate nazionala gainontzeko identitateekin erlatibizatu behar dagoela azpimarratu nahi da. Euskal identitatea erreflexiboa den «nork» batek garatzen du, identitate desberdinez osatuta dagoen subjektu honek beselako bat «errepresentatu» dezakeelarik: identitate nazionala, genero identitatea, sexuala edota langile identitatea lehenetsi, garatu eta errepresentatuko da «nork-nori-non» horren arabera. Horrela beraz, euskal identitatea (gainontzeko identitateak bezala) egin egiten da, subjektu erreflexiboak egunerokotasuneko praktiken bidez garatzen duen erlaziozko identitate eta kontestualek izatearen logika gaintitzen dutelarik: pertsona «euskaldun» batek, bere emakume, homosexual edota langile identitatea indartu dezakeelarik, adibidez<sup>10</sup>.

Testuan zehar bigarren elementu bat ondorioztatu daiteke: euskal identitatea garatzeko moduak, logikak, espazioak eta tresnak aldatu direla. Honekin ez da esan nahi modu tradizionalak desagertu direnik, honekin, beste garai batzuetan euskal identitatea garatzeko erreproduzio mekanismo sozialek nagusiki logika politiko baten arabera gidatzen baziren ere, egun, logika kulturalak, ekonomikoak eta sozialak ere garrantzia hartu dutela esan nahi da. Instituzioek espazio publikoa monopolizaturik, euskal identitatea garatzen duten gizarte praktikak Frankoren garaiko espazio pribatu eta intimoetara bueltatu dira: kalea eta tabernaz gain, gorputza bezalako espazio intimoek bere biziko garrantzia dutelarik. Era berean, euskal identitatea garatzeko tresna berriak aurkitzen dira egungo gizartean, hemen, Facebooken ikerketa kasu zehatz honetan ikusi bezala, teknologia berriek duten eragina eta proiektzioa azpimarratu behar delarik.

Hirugarrenik, euskal identitatea garatzeko logika, espazio eta tresnak transformatzeaz gain, agenteak ere berdefinitu direla ondoriozta daiteke. Talde

---

<sup>10</sup> Honen harira, hAUSnART aldizkarian Joseba Sarrionaindiak esandakoa bereziki lagungarria eta argigarria izan da. hAUSnART (2011): «Elkar-Hizketa: Joseba Sarrionaindia. Elkarrizketatzaileak: Gorka Bereziartua eta Andoni Olariaga», hAUSnART, 0. alea Orriak 10-36, Gipuzkoa. Kontsultarako [http://basque.criticalstew.org/?page\\_id=6367](http://basque.criticalstew.org/?page_id=6367)

identitatearen garapenean aztertuak izan diren *gu-gu* mota eta «identitate negatiboaz» gain (*gu-haiek*: haiengandik berezituz gure identitatea indartuz), batetik, *gure* tradizioetik bereizteak ere egungo euskal identitatea garatzen duela ikusi da: euskalduntasun sentipen tradizionala banalizatuz bestelako euskalduntasun mota bat aurkitzen delarik. Agente mota hau Facebookeko taldeetan ikusi ahal izan da aztertutako talde banalek euskal identitatea ulertzeko eta garatzeko modua azaldu denean: iraganeko euskal identitatearen inguruko elementuei edota garatzeko moduei erreferentzi eginaz eta batzuetan barre eginez, egun, beste modu batean garatzen dutelarik identitate nazionala.

Bestetik, euskal identitatearen garapena berria ez den *haiek-gu* eredia garatzen aurkitu da, hau, Àlvar Perisek estatu nazioek Interneten duten eragina eta esku hartzearekin ikusi ahal izan delarik. Estatu espainol zein frantsesak online munduan ematen den euskal identitatearen garapenean eragin estrukturala dutela ikusi ahal izan da, Facebooken euskaldun moduan agertzeko ezintasuna agerian utzi delarik eta estatuen eragina edota *haiek-gu* espazio hauetan zelan ematen den agerian utziz.

Laugarrenik, euskal identitatea ezin definitu izateak *gu* euskaldun baten eraikuntzan eragiten duten erreferente identitarioen interpretazio eta identifikazioa zailduko duela ondoriozta daiteke. Batetik, ezin da euskal identitate kolektiboaren barnean dauden subjektu guztiak komunean duten elementua zein den identifikatu (garai batean jaioleku, lan edo odolaren ezaugarriekin egiten zen bezala) eta bestetik, euskaldun izatea komunitatearekiko lotura suposatzen duen elementu hori edukitzea denik ezin da baieztatu ere. Garai batean euskal kolektibo osoa biltzen zuen «*dosel sakratu*» batez hitz egiten bazen ere, egun, ematen den konplexutasunak bestelako erantzun posible batzuk bilatzea eskatzen du: sinbolo zehatz batzuk identitatearen ardatz izan daitezke momentu eta praktika konkretu batzuei dagokionean, baina berau ere, «nork-nori-non» ideia jarraituz, aldakorra izan daiteke, baldin eta testuingurua, praktika edota subjektua bera aldatzen badira. Horregatik Facebookeko kasu zehatzean euskal identitatearen garapenaren azterketa zenbait elementu eta sinbolo zehaztutara mugatu da, datozen urteetan aukera gehiago barnebiltzeko asmoz.

Horrela beraz, bosgarren eta azken ondorio moduan, euskal komunitatea ulertzeko eta irudikatze forma bakar batetik, askotara pasatu dela esan daiteke. Beste era batera esanda, beste garai batean euskal identitatearen auziari definizio argi batekin erantzuteak eta erreferente identitario bakarren inguruan mugitzeak euskal komunitate bakar bat existitzea suposatzen zuen; egun, euskal identitatea *zer den* erantzun ezin daitekeen honetan, erreferente identitario ezberdinak dituzten euskal komunitate anitz aurkitu daitezke hauek barnebiltzen dituen euskal komunitate kolektibo baten baitan. Horrela, eskuratzea edo betetzea ezinezkoa den «euskal identitate esentzial» bati erantzuten dioten hainbat praktika burutzen dira egunerokotasunean

(hauetariko asko modu ez arrazionalen), ustezko «benetako edo purua den euskaldun» baten irudikapenak komunitate osoak konpartituko dituen zenbait jokabide komun egitea ahalbidetuko duelarik. Modu honetan, etengabe aldatzen ari bada ere, identitatea beraren existentzia bermatua geldituko litzateke, mito identitario honek inork eskuratu ezin duen baina etengabe imitatua den nukleo ideal horren inguruan norberaren burua irudikatzea eta horren arabera zenbait praktika burutzea eramango lukeelarik subjektua (Butler, 2004). Komunitate aniztasun hau, egun, euskal identitatea garatzeko ere balio duen Facebook bezalako tresnak eskaintzen duen talde adskripzio moduan ikusi ahal izan da: klik egitearen kasua bereziki argigarria da.

Hau guztia kontuan izanik, eta eragin sozio-historiko estrukturalak duen indarra azpimarratuz, besteak beste performatibitatea, testuingurua, harremanak, kontingentzia, banalitatea eta utilitarismoa kontuan izango dituen identitatearen ulerkera bat onartu beharra ikusten da. Datozen urteetarako erronka pertsonala, ideia hauetatik abiatuta, testu honetan mahai gaineratu eta identifikatu diren elementuak (ikergalderaren aldaketa, logika, agente, espazio, tresna eta erreferente identitarioak) eta hutsuneak betetzea izango da. Modu honetan, euskal gazteek Facebook bidez euskal identitatea zelan garatzen duten argitu ahal izateko eta muga geografikoe-tatik kanpo ere euskal identitatea zelan garatzen den ezagutu ahal izateko.

## Erreferentzia bibliografikoak

- ANTZA, Mikel (2000), *Ospitalekoak*. Gipuzkoa: Susa.
- ARDÉVOL, Elisenda; DOMÍNGUEZ, Daniel & ESTALELLA, Adolfo (2008), *La mediación tecnológica en la práctica etnográfica*. Donostia: Ankulegi.
- BAUMAN, Zygmunt (2003), *Modernidad líquida*. Mexiko: Fondo de cultura económico.
- BECK, Ulrich & BECK-GERNSHEIM, Elisabeth (2003), *La individualización*. Bartzelona: Paidós.
- BECK, Ulrich (2006), *La sociedad del riesgo: hacia una nueva modernidad*. Bartzelona: Paidós.
- BEREZIARTUA, Gorka & OLARIAGA, Andoni (2011), «Elkar-Hizketa: Joseba Sarrionandia. Elkarrizketatzaileak: Gorka Bereziartua eta Andoni Olariaga». hAUSnART (0): 10-36. Kontsultarako [http://basque.criticalstew.org/?page\\_id=6367](http://basque.criticalstew.org/?page_id=6367)
- BOURDIEU, Pierre (1990), *La juventud no es más que una palabra*. Mexiko: Grijalbo/CNCA.
- BUTLER, Judith (2004), *Lenguaje, poder e identidad*. Madril: Síntesis, S.A.
- CAMPAS, Joan (2007), *El hipertexto*. Bartzelona: UOC.
- CASTELLS, Manuel (2001), *La galaxia Internet*, Madril: Arete.
- ECHVERRÍA, Javier (1999), *Los señores del aire: Telépolis y el tercer entorno*. Madril: Destino.
- EUSKO JAURLARITZA (d.g.), *Guía de redes sociales*. l.g.: a.g. Kontsultarako [http://www.osasun.ejgv.euskadi.net/r52-581/es/contenidos/informacion/formacion/es\\_1314/adjuntos/recursos%20on%20line/guia\\_redes\\_sociales\\_cast.pdf](http://www.osasun.ejgv.euskadi.net/r52-581/es/contenidos/informacion/formacion/es_1314/adjuntos/recursos%20on%20line/guia_redes_sociales_cast.pdf)



- GÓMEZ, Edgar (2002), «Espacio, ciberespacio e hiperespacio». *Observatorio Cyber Sociedad (online alea)* (19): p.p.g.
- GURRUCHAGA, Ander (1990), *La refundación del nacionalismo vasco*. Leioa: Servicio Editorial UPV/EHU.
- HALL, Stuart (2003), «¿Quién necesita identidad?», in AA.VV., *Cuestiones de identidad cultural*. Bartzelona: Amorrortu, 13-39 or.
- HINE, Christine. (2004), *Etnografía virtual*. Bartzelona: UOC.
- JAMESON, Fredric (1996), *Teoría de la postmodernidad*. Madril: Trotta.
- JONES, Steven (1998), *Cibersociedad 2.0*. Bartzelona: UOC.
- LACLAU, Ernesto (2005), *La razón populista*. Mexiko: Fondo de cultura económica.
- OIARZABAL, Agustín & OIARZABAL, Pedro (2005), *La identidad vasca en el mundo: narrativas sobre identidad más allá de las fronteras*. Bilbo: Erroteta.
- PERIS, Àlvar (2010), «Internet e identidad nacional: Estado, dominios y comunidades virtuales». *IC-Revista Científica de información y comunicación* (7): 221-253.
- SENNET, Richard (2006), *La corrosión del carácter*. Bartzelona: Anagrama.
- SENNET, Richard (2007), *La cultura del nuevo capitalismo*. Bartzelona: Anagrama.
- SOZIOLOGIA KLUSTERRA (2011), *Nerabeak, interneteko sare sozialak eta euskara*. l.g.: a.g. Kontsultarako <http://www.soziolinguistika.org/nerabeaksaresozialak>.